ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

KARATULA

OBRA KONTRATUETARAKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA

PROZEDURA IREKIA

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

ESPEDIENTE-ZENBAKIA.

2023-00488

ESPEDIENTEA SUSTATZEN ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN SAILA

Udal futbol zelaiaren birgaitze obra

KONTRATAZIO-ORGANOA

Udalbatza osoa

CPV KODEA: 45212000-6 Aisialdiarekin, kirolekin, kulturarekin eta ostatuarekin eta jatetxeekin lotutako eraikinak eraikitzeko lanak.

ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA (SARA)

☒ ez

KONTRATAZIOAREN ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA JAR DAITEKE

☒ ez

LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

☒ Bai. Lizitazio honek bitarteko elektronikoen bidez bakarrik onartzen du eskaintza aurkeztea. Horretarako::

1.- Eskaintzak Ondarroako Udalaren Lizitazio Elektronikoaren Plataforman aurkeztuko dira, udalaren webgunean argitaratuta www.ondarroa.eus

2.- Jakinarazpenak agerraldi elektronikoaren sistemaren bidez egingo dira.

Eskaintza bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, ikusi jarraibideak karatula honetako lizitazio elektronikoaren klausulen eranskinean.

KONTRATU-DOKUMENTUAK

Esleipendunak bere proposamena egitean bere gain hartzen dituen betebehar gehigarriak alde batera utzi gabe, kontratuizaera izango dute honako dokumentu hauek:

- karatula,
- administrazio-klausulen agiria (aurrerantzean, AKP),
- baldintza teknikoen agiria (aurrerantzean, BTP)
- prezioen kuadroa
- planoak
- proiektoaren memoria (Kontratazioa Erregelamenauren 128 art.)
- Obraren proiektua
- kontratua formalizatzeko agiria.

ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

☒ Ez dira onartzen

SORTAKAKO ZATIKETA

☒ Ez, justifikazio-memorian adierazitakoaren arabera, ez da bidezkoa sortatan banatzea.

KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA

OBRA BURUTZEKO EPEA (edo kontratistak eskaini duen epea, laburragoa bada)	7 hilabete
NOIZ HASI	Hasiera 2024ko apirilaren 22an aurreikusten da, behin kontratua eta lanen zuinketa-aktak sinatuta.
EPE PARTZIALAK (ez/bai, honako hauek dira prestazioaren zatiak hasteko edo amaitzeko epe partzialak:	Lanak 2024ko abenduaren 31 baino lehenago amaitu behar dira.
EPEA LUZATZEA: exekuzio-epea luzatu ahal izango da, zigorrak aplikatzeari kalterik egin gabe, atzerapena kontratistari egotzi ezin zaionean izan ezik.	Bai, arrazoi teknikoengatik soilik.

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Beheranzko eskaintzak LIZITAZIO-TIPO honen gainean egingo dira:

Lizitazio-tipoa	2.383.926,46 euro
BEZ %	21%
GUZTIRA	2.884.551,02euro

Kopuru hori izango da beheranzko eskaintzetarako erabiliko den gehieneko kopurua, eta kopuru hori gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Publizitatearen eta aplikatu beharreko esleipen-prozeduraren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia hau da: (BEZ kanpo)

Zerbitzuen/horniduren balio zenbatetsia (LOA)	2.383.926,46euro
Aurreikusitako aldaketaren balio zenbatetsia (0%)	0 euro
BALIO ZENBATETSIA GUZTIRA	2.383.926,46euro

AURREKONTU APLIKAZIOA ETA EGOTZIKO ZAION URTEA

Gastuaren aurrekontu-aplikazioa eta kontratuaren aurrekontu-urtesariak honako hauek dira:

AURREKONTU-APLIKAZIOA	*URTEA*	*ZENBATEKO (BEZ BARNE)*
060/00 34230 622.01.00	2024	2.884.551,02€

Gastua kofinantzatuta dago:

☒ Ez

IZAPIDETZEA.

☒ Aurreratua.

II. KONTRATATZEKO BALDINTZAK

GAITASUNA

Pertsona natural edo juridikoak beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruko prestazioak dituzten kontratuen esleipendun baino ezin izango dira izan.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Prozedura sinplifikatuaren bidez izapidetutako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaileek inskribatuta egon beharko dute Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean.

Hala ere, ohartarazten da Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez badago, baldintza hori behin-behinean etenda geratu dela. (Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak kontratazio-organoei egindako gomendioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikulua ROLECEn inskribatzeko betekizuna aplikatzeari dagokionez).

ENPRESA-GAIKUNTZA EDO GAIKUNTZA PROFESIONALA:

☒ Ez

KAUDIMENA

Kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzeko betebeharra:

☒ Enpresa-sailkapen hau eskatzen da:

Talde C (eraikinak)	Azpitalde 1	Kategoria 1
	Azpitalde 2	Kategoria 2
	Azpitalde 3	Kategoria 1
	Azpitalde 4	Kategoría 2
	Azpitalde 6	Kategoria 2
	Azpitalde 7	Kategoria 1
	Azpitalde 8	Kategoria 2
Talde I (instalazio elektrikoak)	Azpitalde 1	Kategoria 3

Kaudimen-betekizun horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar ditu, klausula honetan adierazitako dokumentuen bidez.

III. LIZITAZIOA

ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

☒ Prozedura irekia

☒ Adjudikazio-irizpide bakarra dago.

LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA.

- Ondarroako Udalaren kontratatzailearen profila: http://www.ondarroa.eus
- Euskadiko Kontratazio Plataforma: https://contratacion.euskadi.eus/
- Europa Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

☒ Ez dagokio

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

☒ 26 egun natural.

Ondarroako Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako eguneko 13:00ak arte (13:00). Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira asteko 7 egunetan, **aurkezteko epearen azken egunean izan ezik, orduan 13: 00ak arte aurkeztu ahal izango baita.**

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea erabakitzen badute, adibidez, eskaintza transmititzeko zailtasunak dituztelako, eskaintzaren tamainaren ondorioz, sarearen konexio-arazoengatik, eta abar, eskaintzak aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen bidali beharko dute beti beren eskaintzaren hatz-marka elektronikoa ("hash"), honako helbide elektroniko honetara: orokorra@ondarroa.eus, eta adierazten den espediente-zenbakia adierazita.

PLEGUAK ETA GAINERAKO AGIRIAK LORTZEKO LEKUA.

Euskadiko Kontratazio Plataforma: https://contratacion.euskadi.eus/

Ondarroako udaleko kontratatzailearen profilaren bidez: http://www.ondarroa.eus

ESKAINTZAK AURKEZTEKO ERREGISTROA

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko Ondarroako Udalaren Lizitazio Elektronikoko Plataforman, kontratuaren datuei dagokien fitxan dagoen lizitazio honi dagokion eskaintzaren eskema erabiliz.

http://www.ondarroa.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orrialdeak/Listado.aspx

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko euskarri zerbitzuaren telefonoa honako hau da: **946000022**

Proposamenak beste edozein bidetatik aurkeztea lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi izan daiteke.

INFORMAZIOA

Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:
- helbide elektronikoa: ukortaberria@ondarroa.eus
- teléfono zkia:94.683.36.77

Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:
- helbide elektronikoa: dmaeztu@ondarroa.eus
- telefono zenbakia: 94.683.37.74

KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK

Kontsultak aurkezteko modua: honako helbide elektroniko honetara bidalitako idazkiaren bidez: orokorra@ondarroa.eus

Kontsultak aurkezteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino hamar egun natural lehenago, gehienez.

Lizitatzaile guztientzat interesgarriak diren kontsulten erantzunak www.ondarroa.eus/kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, kontratuaren datuei dagokien fitxan.

Kontsulten izaera loteslea: bai.

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA: ZENBAT GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOAK AURKEZTU BEHAR DIRA:

BI GUTUN-AZAL:

A gutun-azala: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. Gutun-azal bakarra aurkeztuko da, parte hartzen den loteak edozein direla ere.

B gutun-azala: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA. Gutun-azal bakarra aurkeztuko da, parte hartzen den loteak edozein direla ere.

GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

A GUTUN-AZALA: "ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA"

A.1.- EKAB AGIRIA: kontrataziorako Europako dokumentu bakarra (EKAB) aurkeztuko da, enpresa interesdunaren adierazpen formal eta eguneratua.

EKAB hori elektronikoki inportatzen da EKAB estekatik, "EKAB fitxategia" izeneko XML fitxategia deskargatu ondoren (*betetzeko, ikusi jarraibideak AKBPren eranskinean*).

A.2.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ondarroako udalaren aurrean betekizunak betetzea (I. eranskineko ereduaren arabera)

A.3.- ABEE-UTE: ABEEaren kasuan, ABEE eratzeko konpromisoaren eredua aurkeztuko da (I.BIS eranskinetan agertzen den ereduaren arabera).

** oharra: ABEEaren edo kanpoko bitartekoekin kaudimena integratzearen kasuan (SPKL 75) EKAB bat eta erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko dira enpresa bakoitzeko.

Ohartarazten da proposamenak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango dela une erabakigarria legez eta administrazio-klausula zehatzen agiri honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren ikusteko.

B GUTUN-AZALA: "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Agiri hauek izan beharko ditu:

B.1.-ESKAINTZA EKONOMIKOA eta automatikoki ebalua daitezkeen gainerako irizpideak, kasua: (IV. eranskineko eskaintza-ereduaren arabera)

IV. ESKAINTZAK ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

FORMULEN ARABERA KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK 100% (100 PUNTUAK)

BALORAZIO-IRIZPIDEAK	GEHIENEKO PUNTUAK	B GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
1.- Eskaintza ekonomikoa (prezioa): Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik merkeenari, eta gainerakoei puntuazioa hurrengo formula aplikatuz emango zaie: Eskaintzaren puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza merkeena zati baloratuko den lizitatzailearen eskaintza, eta horren zatidura biderkatuko da irizpideari eman dakizkiokeen puntu guztiekin. Honako formula hau, alegia: (Ob x Z)/OI (Non OI izango den baloratzen den enpresa lizitatzailearen eskaintza, eta Ob deskontu garrantzitsuenaren eskaintza, eta z, aldiz, irizpide honetan aplikatu beharreko gehienezko puntuazioa).	100 PUNTU	IV. ERANSKIN EREDUAREN ARABERA

FORMULEN BIDEZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEKO PUNTUAZIO-MUGA

☒ Ez da ezartzen.

BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK (149 art)

☒ SPKLren 149. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-mahaiak honako hau hartuko du anormaltasun-presuntziopean dagoen eskaintzatzat: lizitatzaile bakarra aurkezten denean, lizitazio-aurrekontua baino ehuneko 30 unitate txikiagoa denean. 2 lizitatzaile edo gehiagoren kasuan, aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren % 20etik behera egotea.

V. KONTRATUA ESLEITZEA

KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA:

☒ Bai. Kideen izen abizenaketa kargua:

Presidentea:

Titularra: Irina Alkorta Bedialauneta, zinegotzia

Ordezkoa: Estibaliz Arruti, zinegotzia

Bokal teknikoa eta Mahaiaren idazkaria:

Titularra: Unai Kortaberria, aparejadorea

Ordezkoa: Maria Iriondo, aparejadorea

Kontuhartailetza:

Titularra: Josebe Arauko, kontu-hartzailea

Ordezkoa: Egoitz Zabala, diruzaina

Idazkaritza:

Titularra: Daniel Maeztu, Udal idazkaria

Ordezkoa: Kristina Etxeberria, AOT

Mahaiaren idazkaria:

ADITU-BATZORDEA/ERAKUNDE TEKNIKO ESPEZIALIZATUA:

☒ Ez

KONTRATUA ESLEITU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

AKPPren 22. klausulan adierazitako administrazio-dokumentazioa aurkeztu beharko da.

BERMEAK

1.- Behin-behineko bermea:

☒ Ez da behar

2.- Behin betiko bermea:

☒ Bai, eskaintzaren % 5, BEZik gabe.

3.- Harrera partziala bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak:

☒ Ez

VI. KONTRATUA GAUZATZEA

KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Izena eta kargua: Unai Kortaberria Castro, aparejadorea

Telefonoa: 94.683.36.77

Emaila: ukortaberria@ondarroa.eus

Kontratuaren jarraipenaz eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: Hirigintza

PREZIOA ORDAINTZEA:

1.- Modalitatea:

☒ Ordainketa partzialak aldizkakotasun honekin egingo dira: HILEKO ZERTIFIKAZIOAK

- Ordainketa partzialak egingo dira, PTPan zehaztutako gauzatze-faseak entregatu eta jaso ondoren.
- Esleipen-prezioaren hamabirenari dagozkion hileko fakturak egingo dira.
- Hilero fakturak egingo dira, hilabete bakoitzean (edo PTPan ezartzen den aldi bakoitzean) benetan egindako lanari dagozkion balorazioetan oinarrituta.

2.- ordaintzeko modua: aldez aurretik faktura elektronikoak aurkeztu beharko ditu kontratistak, administrazio-klausula zehatzen agirietan xedatutakoaren arabera, eta banku-transferentzia bidez.

Fakturaren organo hartzailea: kontratuaren arduraduna

Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: Udalaren kontu-hartzailetza

PREZIOAK BERRIKUSTEA: Ez da egokia (SPKL 103.1 art.)

KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Sozialak edo enpleguari buruzkoak: AKPPren baldintza orokorren klausulan adierazitakoak.

Ingurumeneko arlokoak:

Bai, hauek:

a) Enpresa kontratistak bereziki zainduko du obrak egiten diren bitartean ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izatea, eta, bereziki, eraispenetik eratorritako hondakinen kudeaketa egokia bermatuko du, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

b) Enpresa kontratistak behar diren neurriak hartuko ditu lanak egitean sortutako hauts-isuriak murrizteko, ingurumenean eta bizilagunetan eraginik ez izateko. Horretarako, dagozkion neurriak hartu beharko ditu bere kontura, lanen zuzendariak edo udal-ordezkariek agindutako neurriez gain.

c) Enpresa kontratistak bereziki zainduko du lanetan sortzen den zarata minimizatzea. Arreta berezia jarriko du bizilagunen atseden-orduen errespetuan, eta behar diren neurri guztiak hartuko ditu zarata-maila behar-beharrezkoa denera mugatzeko une oro.

d) Lanak, txostenak eta bestelako materialak formatu elektronikoan entregatuko dira lehentasunez. Inprimatu behar badira, eta irakurgarritasun-arazorik ez badago, paper birziklatuan inprimatuko dira, alde bikoitzean eta monokromoan (zuria/beltza).

Berdintasun arlokoak:

Kontratua gauzatzeko langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua badu, emakumeak kontratatzeari eman beharko dio lehentasuna kontratua gauzatzeko garaian. Plantilla desorekatutzat hartuko da emakumeen ordezkaritza edo presentzia guztizkoaren % 40etik beherakoa duena.

Kontratua exekutatuko duen plantillari dagokionez, lizitatzaileak gerentziako, kualifikazio handiko edota ardurazko lanpostuak bete behar baditu, emakumeak enplegatzeko konpromisoa hartuko du.
Ondarroako Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunerako Udal plana onartua du, beraz, enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, aintzat hartuko ditu Ondarroako Udalak indarrean duen berdintasun planean ezarritako neurriak eta irizpideak betetzeari buruz emandako jarraibideak.

Hizkuntza-motakoak:

AKPP baldintza orokorren klausulan ezarritakoak eta bereziki hauek:

a) Herritarrekiko hartu-emanak:

- Futbol zeliako aldagelen obran agerian (ikusgai zein entzungai) egongo den informazioa, alegia, idatzizkoa zein ahozk euskaraz emango da.

- Hizkuntza paisajea (seinalizazioa, oharrak, e.a. -Baldintza administratiboetako 32. atala-) euskaraz egongo da. Komunikazi errazteko, piktogramak erabiliko dira euskarazko azalpen-testuek lagunduta edo, administrazioarekin adostuta, tes elebidunen bidez, euskarari lehentasuna emanda.

b) Udalarekiko hartu-emanak: Udaleko lan-hizkuntza euskara da. Hori izan beharko du kontuan esleipendunak kontra honen ondorioz sortu diren hartu-emanetarako. Beraz, ahal dela, solaskide euskaldun bat izendatuko du horretarako.

ASEGURUAK.

Kontratistak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta honako aseguru espezifiko hauek ere, esleipendunak kontratua formalizatu aurretik egiaztatu behar dituenak:

☒ Bai, hurrengoak:

- Poliza mota: Aseguratutako arriskua (ardura zibila, eraikuntzako asegurua, eta abar)
- Baldintza espezifikoak: Ustiapenaren erantzukizun zibilerako frankizia ezin izango da 6.000 euro baino gehiagokoa izan, eta ezbeharragatiko kalte-ordainen gutxieneko muga 500.000 eurokoa izango da.

KONTRATUA LAGATZEA. Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak SPKLren 214.1 artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera:

☒ Bai

AZPIKONTRATAZIOA.

1.- Azpikontratatzeko aukerari mugak ezartzen zaizkio:

☒ Ez

2.- Lizitatzaileek honako informazio eta/edo dokumentazioa:

- Azpikontratuak egiteko, administrazio-klausula zehatzen agirian adierazitakoa bete beharko da.

3.- **Zuzeneko ordainketa azpikontratistei: EZ**

KONTRATU-ZIGORRAK.

1) **berandutzeagatik**: AKPPren zigorrei buruzko klausulan ezarritakoak.

2**) Betearazpen-baldintza bereziak** behar bezala ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren% 10era arte.

3**) Soldaten ordainketa behin eta berriz ez betetzeak edo atzeratzeak**, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzea larria eta dolozkoa bada, 192. artikuluan aipatutako zigorrak ezarriko dira.

4) **Esleipen-irizpideetan baloratu diren konpromisoak ez betetzeagatik**: kontratuaren prezioaren% 0,1etik kontratuaren prezioaren% 10erainoko zigorra aplikatuko da, ez-betetzearen larritasunaren proportzioan.

5) Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren% 0,1etik kontratuaren prezioaren% 10era arteko zigorra aplikatuko da, ez-betetzearen larritasunaren proportzioan:

Ez-betetze hauek eta dagozkien zigorrak akastuntzat jotzen dira:

KONTRATUA ALDATZEA (204 SPLK)

1.- **kontratua aldatzeko aukera,** interes publikoko arrazoiengatik:

☒ Ez

2.- Aurreikusi gabeko aldaketak: aurreikusi gabeko aldaketak egin ahal izateko, interes publikoko arrazoiak direla-eta eta lege honen SPKL 205.

ZERBITZUA EMAN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA.

1.-Prestazioa behar bezala eman dela egiaztatzeko modua: kontratuaren arduradunaren egiaztapen-txostena.

2.- Prestazioen harrera egiteko epea; hilabete

3.- Harrera partzialak daude;

☒ Ez

4.- Berme-epea:

URTEBETE, edo, kontratistak eskaini duen epea, gehiago baldin bada, Berme-epeak irauten duen bitartean, kontratistaren erantzukizuna izango da kontratua gauzatzean izandako akats guztiak bere kontura konpontzea.

EZ BETETZEA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIA DEN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

1.- Kontratu-betebehar orokorrak.

- Administrazio-klausula zehatzen agirian eta, hala badagokio, BTPan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak.

- Kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea, bereziki proposamenean adierazitakoak.

- Azpikontratazioa egiteko baldintzak, SPKL 215.3

2.- Gizarte edo lan arloko betebeharrak:
Kontratua gauzatzeko aldi osoan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak betetzea, eta, nolanahi ere, langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboari jarraiki.

3.- Aldi baterako enpresa-elkartea izanez gero, zati edo lan horiek kide zehatz batek egin beharko dituela ezartzen da:
☒ Ez

KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi gehigarriak ezartzen dira SPKLren 211 eta 245 artikuluak.

2.- Beste suntsiarazpen-arrazoi batzuk ezartzen dira:

- Eskaintzan jasotako baldintzak ez betetzea.

- BTPn funtsezkotzat jotako betebeharrak ez betetzea, hala badagokio.

- Bereziki, karatula honetako adierazitako funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea.

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO KLAUSULA GOMENDIOA

Lizitatzaileei gomendatzen zaie, azken uneko arazo teknikoak saihesteko, behar besteko aurrerapenarekin aurkez dezatela

eskaintza.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira Euskadiko Kontratazio Plataformaren bidez (Ondarroako Udalaren profila).

Konfidentzialtzat jotako eskaintzaren informazioak banakako fitxategian agertu beharko du, eta hala jasoko da lizitatzaileak dagokion gutun-azalean (fitxategiaren izena) aurkeztuko duen erantzukizunpeko adierazpenean.

Plataformak ez du mugarik ezartzen eskaintza bati erantsi dakizkiokeen artxiboen kopuruan.

Lizitatzaileen ardura da eskaintzek birusik ez dutela zaintzea. Hala ere, birusa edukitze hutsak ez du esan nahi eskaintza baztertzen denik, baldin eta edukia ikusteko aukera badago.

Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, Kontratazio Mahaiak erabakiko du.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira, asteko 7 egunetan, aurkezteko epearen azken egunean izan ezik, orduan 13:00ak arte aurkeztu ahal izango baitira.

Eskaintza aurkezteko eguna eta ordua plataformaren erregistro elektronikoak emandako frogagirian agertzen direnak izango dira, eta eskaintza jasotzen den unearekin bat etorriko dira.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bidali ahal izango dira, edo osorik, une bakar batean edo bi fasetan. Lehenik eta behin, eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa transmitituko da, eta hura jasotzearekin batera, eskaintza bera ondorio guztietarako aurkeztutzat joko da, eta, ondoren, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza kendu egin dela ulertuko da.

Eskaintzaren "hash" aztarna elektronikotzat hartzen da eskaintzaren beraren edukiarekin zalantzarik gabe erlazionatuta egotea bermatzen duen sorrera-prozesua duen datu-multzoa, eskaintzaren edukiaren balizko aldaketak detektatzeko aukera ematen duena eskaintzaren osotasuna bermatuz; izan ere, haren edukia lizitatzaileak bidali duen unetik ez dela aldatu egiaztatzeko aukera ematen du.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea erabakitzen badute, adibidez, eskaintzaren tamainaren ondorioz eskaintza transmititzeko zailtasunak aurreikusten direlako, sarearen konexio-arazoak aurreikusten direlako, etab. Eskaintzak aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen, eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa bidali beharko dute. Kasu horretan, 24 orduko epea izango dute eskaintzaren bidalketa osatzeko. Epe hori "hash" aztarna elektronikoa Ondarroa@ondarroa.eus helbide elektronikora bidaltzen den unetik zenbatuko da, eskaintzak aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen.

Lizitatzaileek beren eskaintzaren "hash" transkribatutako (ez irudia) hatz-marka elektronikoa bidali beharko dute ondarroa@ondarroa.eus helbide elektronikora, kontratuaren xede den espediente-zenbakia adierazita, lizitatzailearen identifikazio-datuekin batera, kontratazio-mahaiak egiazta dezan hatz-marka digital hori bat datorrela eskaintzaren aztarnarekin, behin eskaintza bidalita (espedientea ezin bada identifikatu, lizitaziotik baztertzeko kausa izan daiteke).

Artxiboa kaltetuta dagoelako eskaintza baten edukian sartzerik ez badago, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako copia lokala erabil daiteke, eskaintzaren aztarna digitala kontratazio-organoaren esku dagoenarekin bat datorrela egiaztatuz.

JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Kontratu hau esleitzeko prozedura izapidetzeak berekin ekarriko du horietatik eratorritako jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektroniko hutsez egitea. Jakinarazpenak agerraldi elektronikoaren bidez egingo dira.

Jakinarazpenak eta komunikazioak agerraldi-sistemaren bidez egiteko, interesdunak edo haren ordezkariak Ondarroako Udalaren web-orrian horretarako diseinatutako atalean eskuragarri jarritako jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira joko du, jarduera honetarako onartutako identifikazio- edo sinadura-sistema elektronikoren bat erabili ondoren.

Bertaratze-sistemaren bidez egindako jakinarazpen elektronikoa egintzat joko da, legezko ondorio guztietarako, interesduna edo haren ordezkaria haren edukira sartzen den unean.

Jakinarazpena eskura jarri dela egiaztatuta 10 egun natural igarotzen badira hartzaileak jakinarazpenaren edukira sartu gabe, jakinarazpena ezetsi egin dela ulertuko da, eta izapidea gauzatutzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, legez

beste epe bat ezarri ezean.

Epeak jakinarazpen-abisutik hasiko dira zenbatzen, baldin eta jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik hasiko dira zenbatzen epeak.

Aurrekoa gorabehera, kontratatzailearen profilean publizitatea egiteko betekizuna ez zaie aplikatuko errekurtso bereziaren prozedura dela-eta egindako jakinarazpenei, horietan kontuan hartuko baita artikulu honetan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epea. SPKLren 50. artikulua, jakinarazpen-abisuaren datatik aurrera.

Ondarroan, sinadura digitaleko datan



Digitalki sinatuta norengandik: DANIEL MAEZTU PEREZ - 30657789P
Data: 2024.02.15 17:04:22 +01'00'